



Lehiaren Euskal Agintaritza eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala Portuko Agintaritzako eta BilbaoEstibako ordezkariekin bildu dira

Urriaren 26tik azaroaren 9ra bitarteko greba deialdi berriaren aurrean, LEA/AVCk, CNMCKekin batera, bilera deitu du Bilboko Portuko egoera kezagarria aztertzeko.

BILBON, 2020ko urriaren 26an / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) bilera izan du gaur arratsaldean, eta Bilboko Portu Agintaritza eta BilbaoEstiba bertan izan dira. Bileran CNMCK ere hartu du parte, bideo-konferentzia bitartez.

Abuztutik, Lehiaren Euskal Agintaritza lehia-zuzenbidearen ikuspegitik ari da gaia aztertzen. Egoera sakonago ezagutzeko eta 2020ko azaroaren Ora arteko greba-deialdi berriaren aurrean, LEA/AVCk bilera honetarako deialdia egin du, eta CNMCK ere hartu du parte bertan.

Bileran agerian geratu da garrantzitsua dela CNMCK hurrengo egunetan jakinaraziko duen V. Esparru Akordioa onartzea. Akordio hori indarrean jartzeak segurtasun juridiko handiagoa ekarriko du, eta baita lan-hitzarmena negoziatzeko esparru juridiko bat ere, hori baita Bilboko Portuan gaur egun indarrean dagoen gatazkaren jatorria.

Langileen lan-baldintzak defendatzeko sindikatuek duten eginkizuna erabat errespetatuz, eta grebarako deialdia egiteko azalduko arrazoiak baloratzen hasi barik, LEA/AVCk uste du, Estatuko eta EBko auzitegien doktrinaren arabera, “enpresen eta langileen ordezkarien arteko hitzarmen kolektiboak ez direla modu automatikoan lehiaren arauak eta zerbitzuak ezartzeko eta emateko askatasunari buruzko EBren Funtzionamendurako Tratatu arauak aplikatzetik kanpo geratzen”.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketara ekonomikoei dagokienez.